



	<p><b>Pertsona fisikoak:</b> Bizkaiko LHan erroldatutako pertsonak Zergetako eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egotea.</p>
<p><b>Pertsona eta erakunde onuradunak</b> (art. 4)</p>	<p><b>Enpresak:</b> Egoitza sozial eta fiskala Bizkaiko LHan edukitzea Bizkaiko LHan produkzio zentro bat edukitzea Zergetako eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egotea.</p>
	<p><b>Sortu berri diren enpresa berritzaileak</b> Enpresentzat ipinitako baldintzak betetzea Jarduera 2007/01/1a baino lehen hasi ez izana Nortasun juridikodun merkataritza sozietatearen edo kooperatibaren era juridikoa izatea.</p>
<p><b>Proiektu eta enpresa berritzaile berriak</b> (art. 2)</p>	<p><b>Enpresa berritzaile berriak sustatu duten erakundeak</b> Zentro teknologikoak, unibertsitateak, lanbide heziketarako zentroak eta I+G+B jarduerak nagusiki garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko bestelako erakundeak</p> <p>Berritzailetzat joko dira produktu, prozesu edo zerbitzuetan elementu berritzaileak aurkezten dituzten enpresen ekimenak.</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Lehentasuna izango dute ondoko hauek: ezagutzaren arloko teknologia aurreratu eta/edo intentsiboetan oinarritzen diren enpresa berriak edo proiektuak.</li> <li>Halaber, hauek hartuko dira kontuan: Bizkaiko merkatuan berriak diren produktuak, prozesuak eta zerbitzuak ekarriko dituzten enpresa berriak eta enpresa proiektuak, hain zuzen ere aberastasuna sortzeko ahalmen handia dutenak.</li> </ol>
<p><b>Diruz lagungarria den egitatea</b> (art. 2)</p>	<p>Enpresa planaren garapena eta definizioa. Enpresa planaren garapena gehienez 36 hilabeteko epean egin beharko da, eta 2007/01/01etik 2009/12/31ra bitarteko aldi burutuko da. Bitarte horretan egindako gastuak hartuko dira kontuan. Eratzen bada, enpresa berria Bizkaian jarri behar da, eta Merkataritza-sozietate edo Kooperatiba izan beharko da juridikoki, baita nortasun juridikoa izan ere.</p>
<p><b>Diruz lagungarriak diren kontzeptuak</b> (art. 3)</p>	<p>Diruz lagungarriak izango dira ondoko enpresa plana garatzeko gastuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Bideragarritasun eta merkatu azterlanak, prototipoak, txosten eta azterlan tekniko espezifikoak, bidaiak eta ferietara joatea, proiektu berria garatzeko eta abiarazteko aholkularitza pertsonalizatua.</li> <li>Proiekturako dedikazio gastuak, pertsona fisikoak diren sustatzaileen kasuan, banakako enpresak ez badira.</li> <li>BEAZ, SA Erakunde Laguntzaileak proposatuta, proiektua garatzeko beharrezkotzat jotzen diren beste kontzeptu batzuk.</li> </ul>
<p><b>Onurak</b> (art. 3)</p>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Ezagutzaren arloko teknologia aurreratu eta/edo intentsiboetan oinarritzen diren proiektuak: garapen-gastuen %90rainoko diru-laguntza eta enpresa plana bakoitzari gehienez 80.000€ emango zaio.</li> <li>Bizkaiko merkatuan berriak diren produktuak, prozesuak eta zerbitzuak ekarriko dituzten proiektuak: garapen-gastuen %70rainoko diru-laguntza eta enpresa plana bakoitzari gehienez 40.000€ emango zaio.</li> </ol> <p>Proiekturako dedikazio gastuak: 1. idatz-zatian adierazitako kasuetan gehienez proiektua garatzeko kostu guztien %20 izango dira; eta 2. idatz-zatian adierazitako kasuetan gehienez horien %15.</p>
<p><b>Arautegia</b></p>	<p>27/2008 Foru Dekretua, martxoaren 11koa, oinarri arautzaileak (BAO 58 zk. 2008ko martxoaren 27a) 1102/2008 Foru Agindua, uztailaren 9koa, 2. deialdia (BAO 136zk. 2008ko uztailaren 16an)</p>
<p><b>Eskabideak</b></p>	<p>Aurkezteko epea: 2008ko irailaren 1etik 30era arte, interneten bidez.</p>

<http://www.programasustatu.com>

e-mail: [sustatu@bizkaia.net](mailto:sustatu@bizkaia.net)

**Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila**

Orueta Apezpikua, 6. 48009 Bilbo

**Argibidea: ☎ 94 406 80 38**

Erakunde kudeatzaileak:

**Beaz, S.A.:** Errekalde zum., 18- 6. - 48009 BILBO - ☎ 94 423 92 28

**Beaz Mintegia:** Sangroniz, 6 - 48150 SONDIKA - ☎ 94 471 01 16

**Cedemi:** Altos Hornos de Vizcaya etorb., 33 -48901 - BARAKALDO - ☎ 94 418 41 00

